

Vitoria-Gasteiz
**GREEN
DEAL**



BATZORDE ZIENTIFIKOA



BATZORDEAREN HELBURUAK

1. HELBURU NAGUSIA:

VITORIA-GASTEIZ GREEN DEAL ITUNAREN JARDUERAK GIDATZEA

2. Helburu operatiboak:

- Green Dealaren helburuak eta lan-esparruak aztertzea eta horiei buruzko ekarpenak egitea, baita dokumentu osoari dagokionez ere.
- Gasteizko Udalak ekimen horrekin lotuta egiten dituen proposamenak aztertu eta balioestea.
- Green Dealaren helburu eta lan-esparruekin lerrotatzen diren ekimenak eta proiektu pilotuak proposatu eta sustatzea, "laborategi hiria" gogoan.
- Analisi eta proposamen txostenak egiten laguntzea Green Dealean jasotako printzipioekin lotuta, hala nola garapen ekonomiko iraunkorra, gizarte kohesioa, zerbitzu publikoak eta ingurumen iraunkortasuna.
- Ituna ekonomia, hezkuntza, ikerketa eta gizarte arloetako hiriko beste agente batzuen artean zein herritar guztien artean hedatzeko formulak planteatzea.
- Hiria eta itun honen barruan garatzen diren ekimenak beste ekimen, proiektu eta erakundeekin konektatu daitezten ahalbidetu eta sustatzea.
- V-G Green Dealeko proiektu eta ekimenak ezagutarazten eta hedatzen laguntzea.

Nortzuk dira batzordekideak?



MIREN ARTARAZ

Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria.

Ekonomian doktore da EHU_n, eta hainbat ardura-postu bete ditu Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan, non irakasle eta ikertzaile aritu baitzen 1997tik 2017ra bitartean.

2011n Emakume Zuzendariaren saria jaso zuen, AMPEA Arabako emakume profesional eta enpresarien elkarteak ematen duena.

Nortzuk dira batzordekideak?



Mª ÁNGELES GARCIA FIDALGO

Bioaraba Osasun Ikerketako Institutuko zuzendari zientifikoa.

Osakidetzari estuki lotutako ibilbide profesional luzea du, 1994tik. Ikertzaile gisa, nabarmendu behar da hainbat proiektutan parte hartu duela, esaterako, irudi bidez gidatutako biopsian, zeinari esker Massachussetseko MITen saria jaso baitzuen 2017an, besteak beste.

Arabako ESIko Berrikuntza Batzordeko eta Erradioterapiako Kalitatea Bermatzeko Batzordeko kide da.

Nortzuk dira batzordekideak?



NURIA GISBERT

CIC Energiguneko manager orokorra; energiaren biltegitratzea ikertzeko Europako erreferentzia-zentroa da hori.

EHUko doktoregoak ditu Enpresa Zuzendaritzan, Ezagutza eta Berrikuntzan (2018) eta Industria Ingeniaritzan (2000).

Innobasqueko Zuzendaritza Batzordean eta Zientzia eta Teknologiako Euskal Kontseiluko Aholkularitza Batzorde Zientifikoan parte hartzen du.

20 urtetik gorako esperientzia du, batez ere energiaren sektoreari lotuta, enpresa pribatuetan eta ikerketa-zentroetan.

Nortzuk dira batzordekideak?



GORKA ORIVE

EHUko Farmazia Fakultateko irakaslea.

Farmakologian aditua, Geroa Diagnostics bioteknologia-konpainiaren fundatzailea da, zeina Alzheimerren tratamenduan espezializatuta baitago.

CIBER-BBN Espainiako Ikerketa Sarean zientzialari aktibo gisa parte hartzen du, eta nazioarte mailako 300 argitalpen zientifiko inguru ditu curriculumean. Lau liburu ditu argitaratuta, beste lau patente, eta nazioarteko 500 konferentzian baino gehiagotan parte hartu du.

Geroa Diagnostics enpresaren fundatzailea da.

Nortzuk dira batzordekideak?



UNAI PASCUAL

Ikerbasque BC3 Klima Aldaketarako Euskal Zentroko ikerketa-irakaslea.

Yorkeko Unibertsitateko (Erresuma Batua) Ingurumen Ekonomiako doktoregoa du.

2001 eta 2013 artean irakasle izan zen Cambridge eta Manchesterreko unibertsitateetan.

NBEk babestutako IPBES plataformaren aditu-taldeko kidea da; giza garapenean, biodibertsitatean eta garapen jasangarrian lan egiten du plataforma horrek.

Future Earth-eko zuzendaritza zientifikoko hainbat batzordetako kide ere bada, hala nola Lurren eta Ekozerbitzuen Programa Globaleko kide.

HURRENGO URRATSEN ETA JARDUERA POSIBLEEN PROPOSAMENA

1. V-G Green Deal planteamenduaren analisia eta balioespena

Helburua:

- Bakoitzaren konpromiso-maila ezartzea eta itxaropenak azaltzea.
- Oinarrizko agiria balioestea eta ekarpenak egitea.
- Hiriko agenteak V-G Green Dealean inplikatzeko proposamenak egitea.

Egutegia: 2020ko uztaila-iraila.

Eraitza: Udalak egindako txostena, ekarpenak eta ituna beste agente batzuei irekitzeko proposamenak jasotzen dituen.

Metodologia: formularioa betetzea, irailaren 4ra arte. Sintesi-agirian jasotako proposamenak aztertzeko bideokonferentzia, irailaren 10ean. V-G Green Deal dokumentu-proposamena lantzea, ekarpenak jasota eta agenteak inplikatzeko prozesua zehaztuta, irailaren 18rako. Eztatidatu eta baliozkotzeko saioa, aurrez aurrekoa, irailaren 25ean.

2. Gasteizko etorkizuneko erronkei buruzko azterlana, Green Dealaren barruan

Helburua: **Ez zaizue txostena lantzea eskatzen, baizik eta bakoitzak bere jakintza esparrutik ekarpenak eta proposamenak egitea guk jasotzeko.*

-Hiriarentzako erronka eta jarduera-eremu estrategikoak definitzea epe ertainerako.

-Jarduera-eremu horien barruan garatu daitezkeen ekintzak identifikatzea.

Egutegia: 2020ko urria-2021eko urtarrila.

Emaitza: ekonomia berdearen, zerbitzu publikoen eta iraunkortasunaren alorretan Gasteizko etorkizunerako erronkei buruzko txostena.

Metodologia:

Udaleko Ikerketa Bulegoak aurretiatzko txostena lantzea, dituen datuetan oinarrituz. 2020ko urriaren 30erako.

Bideokonferentzia saioa, ikerketa abiarazi eta txostena zein ekarpenak jasotzeko eranskina birpasatzeko.

Proposamenak jasotzea: abenduaren 31ra arte.

Laburpen-agiriaren lanketa: urtarrilaren 15erako.

Aurrez aurreko saioa, dokumentua aztertu eta balioztatzeko.

3. Green Deal ekimenak eztabaidatu eta ekarpenak egitea

Helburua:

-Udalaren ekimenez zein aditu-batzordeko kideek proposaturik abian jar daitezkeen proiektu eta ekimenak eztabaidatu eta balioztatzea.

Egutegia: 2020ko irailetik aurrera, etengabe.

Metodologia:

-Udalak abian jartzekoak diren proiektuei buruzko dokumentazioa eta informazioa bidaliko dizkie batzordeko kideei: proiektuaren definizioa, helburuak, parte-hartzaileak, gauzatze egutegia, etab.

-Proiektu bakoitzaren sustatzaileek hura batzordeari aurkezteko eta ekarpenak jasotzeko saioa, bide telematikoz (zoom edo antzekoa).

4. Urteroko zabalkunde-jardunaldia

Helburua:

- Etorkizuneko erronkei buruzko lehen azterlana ezagutaraztea.
- Green Dealaren barruan planteatutako proiektuak aurkeztea.
- Herritarrak inplikatzeko eta proiektua gizartean zabaltzeko guneak sortzea, partaidetza bultzatuz (parte hartzeko jardunaldia).

Egutegia: maiatza-ekaina.

Proiektuak aurkezteaz gain, batzorde zientifikoarekin batera aztertuko da urtero zein gai landu daitekeen jardunaldian.